

## 2. BARNE-PRODUKTU GORDINA (BPG) HAZKUNDE-TASA

### Adierazle taldea

BIZKAIKO ADIERAZLE NAGUSIAK

### Definizioa

Barne Produktu Gordina (BPG) sektore instituzionalen edo jarduera-adarren balio erantsi gordinen batura da, gehi zergak ken produktuen gaineko diru-laguntzak (sektoreei eta jarduera-adarrei esleitzen ez zaizkienak). Ekonomiaren produkzio osoaren kontuko saldoaren berdina ere bada; beraz, denbora jakin batean zehar lurralde bati lotutako ondasun eta zerbitzu guztien produkzio osoa islatzen duen adierazle ekonomiko bat da.

### Unitateak

Urte arteko aldakuntza-tasa

### Datuen urte-tartea

2000tik 2013ra

### Kalkulu-aldizkakotasuna

Urtekoa

### Informazio-iturria

Euskal Estatistika Erakundea (EUSTAT)

### Oharrak

**Indize kateatuen** metodologia aplikatuari esker, estimazio zehatzago eta askoz ere eguneratuagoak lor daitezke, eta beste metodo batzuen mugak gainditu, besteak beste, prezio iraunkorretan eginiko kalkuluak (erreferentziazko egitura ekonomikotik aldentzea) edo prezio arruntetan eginiko kalkuluak (prezioen eta inflazioaren gorabeheren efektua).